



**LEGAZPIKO
UDALA**

OBRA KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKIA ETA PRESAZKOAREN BIDEZ

**KALE NAGUSIA ETA NAFARROA KALEA BERRIZ URBANIZATZEA OINEZKOENTZAT
EGOKITZEKO, 1. FASEA: KALE NAGUSIA, ELIZATIK SANTIKUTZ KALEKO
BIDEGURUTZERAINO**

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

EZAUGARRIEN TAULA

KONTRATUAREN XEDEA

Kale Nagusia eta Nafarroa kalea oinezkoentzat egokitzea eta horretarako berriz urbanizatzeko lehen fasea burutzea

AURREKONTUA

Zifratan	
LIZITAZIOAREN AURREKONTUA: 712.278,06€ (BEZ barne)	OINARRIZKO *588.659,55 € (BEZik gabe) *123.618,51 € BEZari dagokiona

URTEKOAK

Ekitaldia
2015

GAUZATZEKO EPEA

BERANDUTZA ZIGORRAK

Bost (5) hilabete	Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen testu bateratuak 212.4 artikuluan aurreikusitakoak: atzeratutako egun natural bakoitzean, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko zigorra.
-------------------	--

PREZIOEN BERRIKUSPEN FORMULA

Ez dagokio prezio berrikuspenik

BERMEAK

Behin-behinekoa	Behin betikoa
Ez da beharrezkoa	Esleipen zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe)

KLASIFIKAZIOA

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
G	6	d)



LEGAZPIKO
UDALA

ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO DIRENAK:

* **Prezioa. 50 punturaino.** Prezioaren puntuazioa honela kalkulatuko da:

Gehieneko puntuazioa (50 puntu) eskaintza hoberenari emango zaio eta gutxieneko puntuazioa (0 puntu) lizitazioaren oinarriko prezioari emango zaio. Gainerakoa bi muturren artean mugatutako lerro zuzenaren arabera baloratuko da.

* **Bermearen zenbatekoa handitzea. 5 punturaino.** Puntuak honako formula aplikatuta banatuko dira:

Gehien handitzen duenaren eskaintzari 5 puntu emango zaizkio eta handitzen ez duenari 0 puntu, gainerakoak proportzionalki baloratuko dira.

* **Bermearen iraunaldia luzatzea. 5 punturaino.** Puntuak ondoko formula aplikatuta banatuko dira:

3 urteko bermea eskaintzen duenari 5 puntu emango zaizkio.

2 urteko bermea eskaintzen duenari 2 puntu emango zaizkio.

* **Ziurtagiriak eta planak izatea. 3 punturaino.** Puntuak ondoren zehazten denaren arabera banatuko dira:

- Kalitate ziurtagiria (*ISO 9.000, edo antzekoa,..*): puntu 1.
- Ingurumen ziurtagiria (*EMAS, ISO 14.001, Ekoscan,..*): puntu 1.

Laneko osasun eta segurtasun ziurtagiria (*OHMAS, Ekoscan,..*): puntu 1

ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO EZ DIRENAK:

* **MEMORIA TEKNIKOA. 37 punturaino.**

Lehiatzaileak Memoria Tekniko bat aurkeztu beharko du, orrialdeak behar bezala zenbatuta eta bere aurkibidearekin. Bertan, baloratuko diren puntuak bilduko dira, zenbatuta, eta memoria horren edukia nahikoa izango da egin beharreko obren norainokoa eta edukia kalibratzeko.

Memoria teknikoak paper euskarrian eta CDan entregatuko da. CDko fitxategiak "pdf" formatuan eta formatu originaletan (bc3, dwg, doc, etab.) egongo dira.

Memorian jasotako honako gai hauek baloratuko dira esleipenean:

a) **Kontratuaren xedearen azalpena**, proiektuaren azterketa eta obraren zailtasun handienak antzematea (5 orri gehienez, DIN A4, bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 10). **7 punturaino.** Puntuak honela banatuko dira:

Kontratuaren objektuaren definizioa: 0 – 1 puntu

Proiektuaren analisia: 0 – 2 puntu

Zailtasun handienak antzematea: 0 – 4 puntu

b) **Lanen plangintza orokorra.** obrak hasi aurreko lanen analisia, obra eremua seinaleztatzea eta balizatzea eta, proiektuaren Segurtasun Azterketan oinarrituta, hartu beharreko segurtasun neurriak. Obra antolaketaren deskribapena, bere kokapena kontuan izanda, eta sarbideen, makina eta garabien, materiala pilatzeko guneen, obrako behin-behineko tailerren... kokapen planoekin osatuta. (10 orri gehienez, DIN A4 edo DIN A3 (planoentzat), bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 10). **10 punturaino.**

c) Obrak zirkulazioan, **oinezkoetan, inguruetan eta zerbitzuetan izango duen eragin**en murrizketaren azterlana (8 orri gehienez, DIN A4 edo DIN A3 (planoentzat), bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 10). **5 punturaino.**



**LEGAZPIKO
UDALA**

Puntuak honela banatuko dira:

Oinezkoei gutxiago eragiteko azterlana: 0 – 2 puntu.

Komertzioei gutxiago eragiteko azterlana: 0 – 3 puntu.

d) Legazpiko **Udalerriko Urbanizazio, Eraikuntza eta Ingurumena, Paisaia Eta Natura Babestea Arautuko Duen Udal Ordenantzaren** Laugarren tituluan, ingurumena, paisaia eta natura babesteko Ordenantza izeneko atalaren **53. Neurri zuzentzaileak** artikuluan zehazten diren eta obra honi eragiten dioten neurriak betetzearen azterlana (2 orri gehienez, DIN A4, bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 10). **5 punturaino.**

e) **Lan programa** eta GANTT diagramaren bidez proposatutako programazioa. Lan bakoitzarekin zerikusia duten errendimenduen justifikazioa, epe orokor eta partzialen arabera eskaintako giza baliabide eta bitarteko materialekin (orri bat gehienez, DIN A3, alde bakarretik -Gannt Diagrama- eta 5 orri gehienez, DIN A4, bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 10). **10 punturaino.** Puntuak honela banatuko dira:

Proposatutako lan programa: 0 – 5 puntu

Errendimenduen justifikazioa: 0 – 2 puntu

Lan programaren eta errendimenduen arteko koherentzia: 0 – 3 puntu

Baloratu ez arren memorian jasoko diren hainbat gai:

a) Lana egiteko epea.

b) Obrarako izendatutako langileak eta laguntza teknikoak: Atal honetan ondorengoak sartuko dira:

- Izenez aipatu behar dira obretan lan egingo duten teknikariak; gainera, haien kualifikazio eta esperientzia profesionala egiaztatzen duten agiriak erantsi behar dira, eta lan hauei emango dieten dedikazioa –osoa, partziala edo aholkularitzakoa- adierazi behar da. Aipatutako obrako buruaz gain, lan talde teknikoak obra arduradunak, topografoak eta ingurumen teknikariak osatuko dute.
- Azaldu behar da nor izendatu den esleipendunaren ordezkari, eginkizun horretan dedikazio osoz jarduteko. Eginkizun horretarako nahitaez baldintza administratiboetako 20. artikuluan azaldutako titulaziodun teknikari bat izendatu behar da, eta baldintza hauek bete behar ditu: obraren garrantziari dagokion tamainako esperientzia izan behar du, eta obra buru izango da.

Atzerriko enpresen kasuan, aipatu den titulazioaren baliokidea eskatuko zaio.

c) Obra horretarako jarriko diren makinak eta bitarteko lagungarriak. Atal honetan ondorengoak sartuko dira:

- Azaldu behar da zein makina, bitarteko lagungarri, instalazio eta ekipo erabiliko diren obrak egiten, bakoitzaren marka, modeloa, potentzia eta gaitasuna aipatuta, eta argitu behar da baliabide horietatik zeintzuk dauzkan dagoeneko eta zeintzuk erosi edo kontratatuko litzuzkeen esleipendun suertatuz gero.
- Erabiliko diren bitartekoak aipatzen dituen zerrendan, bakoitza zein obra motari atxikiko zaion esan behar da. Aurkeztutako lan programarekin koherentzia gordez, ondorioztatu behar dira batez besteko asteko errendimenduak eta obran eduki behar diren egun kopuruei buruzko aurreikuspenak.
- Bereziki eskora oholtzetarako buruzko aipamena egingo da, bakoitzaren marka, modeloa, eta gaitasuna aipatuta, eta argitu behar da zeintzuk dauzkan dagoeneko eta zeintzuk erosi edo kontratatuko litzuzkeen esleipendun izanez gero.



**LEGAZPIKO
UDALA**

d) Ustez azpikontratatuak diren obren edo lanen zerrenda.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Hirurehun mila euro (300.000)

BERME ALDIA

URTEBETE (1), lanen harrera egiten den egunetik aurrera

AZPIKONTRATA DAITEKEEN GEHIENEN PORTZENTAJEA

% 20

IZAERA SOZIALEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA

Kontratu honetan bete beharko dira lan arloko, gizarte segurantzaren arloko eta lan segurtasun eta osasun arloko lege, arau eta hitzarmenak eta, bereziki, une bakoitzean egon dadin Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren azken testua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta egon dadina.

ALDAKETAK

Ukitutako zerbitzuen berrezartzea zerbitzuen titularrek emandako informazioaren arabera diseinatu da. Lurpean aurkitutako diren zerbitzuak proiektuan jasotako zerbitzuekin bat etortzen ez badira, proiektua aldatu ahal izango da aurreikusitako berrezarpena benetako beharretara egokitu dadin. Aldaketa hori egiteko gutxi gorabeherako diru-kopuru bat aurreikusi da: 73.000,00 € (BEZa barne).

KONTRATAZIO MAHAIA

Lehendakaria: Kepa Urzelai Goitia (Alkatea)
Mahaiko idazkaria: Ainhoa Urruela (AOT)
Batzordekideak:
Iñaki Gastañares (Udal Idazkaria)
Fernando Arakama (Udal Kontuhartzailea)
Alonso Frances (Udal Arkitekto Teknikoa)
Ane Mendinueta (Udal Arkitektoa)
Aitziber Olarte (Udal Arkitektoa)
Amaia Solanas (Bildu)
Javier Iraeta (PNV)
Oscar Valbuena (PSE-EE)
Arantza Arizmendi (H1)